



ehbildu

**Maite
duzun
Itsasondo**

EGINGO DUGU.

Elkar zainduko duen herria

*Itsasondon herritarrok baikara elkarren premiak ezagutu
eta horiek asetzen saiatzen garenak.*



EGINGO DUGU.

Elkarren berri izango duena; elkarren premiak ezagutu eta modu naturalen edo antolatuan horiek asetzen saiatuko dena. Herria, eta ez Udala bakarrik; **Itsasondon Udala gu baikara, herritarrok osatzen baitugu.**

Pandemiak irakasgai eder bat utzi zigun: norbanakoak, indibiduoak, guztiaren zentro bihurtzen duten garai hauen aurrean, elkarren beharra dugu, garai hauek adierazten digutenaren kontrara. Pantailak, Internet edota dirua ez baitira jaten; ez dizkigute medikamentuak etxera ekartzten, ezta begietara begiratzen ere; **irribarrea edo besarkadarik** ere ez digute eskaintzen, ez eta gu geu eta gu bakarrik aintzat hartzen. Itsasondon, ordea, elkar zaintzen eta hori egiteko antolatzen ere badakigula baieztatu genuen, nola denda, farmazia edo kontsultategiaren inplikazioarekin, hala **zaintza-sare zabalean antolatz**en ginen herritarren lanarekin.

Pandemiaren aurretik ere, Itsasondok bazuen komunitatea eratzeko joera; horren adibide izan dira ingurune

bizigarriak sortzeko, bizimodu duinei eusteko edota herri-bizitza sustatzeko egindako hamaika ekimenak, nola udaletik hala eragileetatik antolatuak.

Datorren legegintzaldian ere, elkar zainduko duen herria izateko baliabideak eta tresnak jarriko ditugu herritarren eskura, eguneroko erronkei erantzuteko, irudimenarekin eta txikitik eraginez.

Udal-taldetik moduei gehiago erreparatzen saiatuko gara, herritarren beharrak zehatzago identifikatuz (etxebizitza eta osasuna, adibidez) eta egiten ari garen lana hobeto komunikatuz. **Itsasondoarrok egiten baitugu Itsasondo!**

En Itsasondo sabemos lo que es ayudarnos mutuamente. Han sido muchísimos los proyectos, actividades e iniciativas impulsadas tanto desde el Ayuntamiento, como desde las asociaciones. Seguiremos en ese empeño, identificando y priorizando las necesidades (por ejemplo, en vivienda y salud) y mejorando la comunicación.

Maite duzun Itsasondo



Gure *taldea*



Gure *hautagaiak*

- 1 Iñaki Aizpuru Oiarbide
- 2 Nagore Etxeberria Pikabea
- 3 Iker Mendizabal Garro
- 4 Elena Manso López
- 5 Aitor Garmendia Etxeberria
- 6 Nerea Martinez Iturrioz
- 7 Unai Aldasoro Jauregi

Ordezkoak

- 1 Amparo Urkola Arriategi
- 2 Iñaki Etxaniz Etxaniz
- 3 Irati Salinas Jauregi

Dakizuen bezala, badira legegintzaldi batzuk Udalean, herritarrekin batera, hiru batzorderen arabera funtzionatzen dugula. Hauteskunde hauetara aurkezten dugun talde osoak, modu batera edo bestera, hiru eremuetan edota administraziozko lanen jarraipenean egingo du lan:

Lurralde Antolaketa: Iñaki Aizpuru, Aitor Garmendia, Iñaki Etxaniz.


Herri Bizitza: Iker Mendizabal, Nerea Martinez, Nagore Etxeberria.

Ongizatea: Elena Manso, Amparo Urkola, Irati Salinas.

Administrazioa: Nagore Etxeberria, Unai Aldasoro, Iñaki Aizpuru.

Ametsetatik errealitatera

LUZE JOAN DA ITXARONALDIA, BAINA BADIRUDI **ESKOLA BERRIA ERAIKITZEN** IKUSIKO DUGULA DATOZEN URTEETAN. ETA ESKOLA BERRIA ERAIKITZEAREKIN BATERA, HERRIKO GOIKO AUZOAREN ETA BEHEKO ZATIAREN ARTEAN DAGOEN DESNIBELA ZERTXOBAIT PAREKATUKO DA, GOIKO BIZILAGUNEK PLAZA INGURUAREKIN DUTEN DISTANTZIA LABURTUZ.



IA BI HAMARKADA ZAIN EGON OSTEAN


... martxan jarriko dira laster eskola berria eraikitzeko lanak. 60ko hamarkadan eraiki eta bere onenak emandakoa da Urkipe Herri Eskola. Lau bat legealdi igaro dira, eskola berriaren beharra ikusi zenetik. Garai haietan, irisgarritasun plan bat ere egin zen, eta ondorioztatu zen eskolako bi eraikinen artean dagoen mailaketak ez zuela irisgarritasuna betetzen. Hala, bi hamarkadaren ostean, lortu dugu eskola berriaren proiektua adostu eta obra lizitatzeko prest uztea.

Eta eskola berria eraikitzearekin batera, herriko goiko auzoaren itxura guztiz aldatuko da. Iturri Txikiko aparkalekutik gora errepidea itxita egongo da autoentzat (baimenduek soilik igo ahal izango dute), eta, hala, oinezko eremua bihurtuko da Iturri

Txikiko eremutik Toki Goxo bitarteko zatia. Haurtzaindegi aurreko eremuak plaza itxura hartuko du, eta eserleku, estalpe, lorategi, baratze eta Arama eta Altzaga aldera begira jarritako begira-tokia izango ditu.

Baina ez hori bakarrik, goiko auzoa eta Beitiren artean dagoen ia 7 metroko koska berdindu egingo da, eskolako eraikin berriak izango duen igogailuari esker. Eskolako eraikin berria eta Beiti Kalea lotzeko, bide berri bat eraikiko da Iturri Txikitik abiatu eta Etxeberri eta Senperategi etxeen tartetik.

Goiko Kalea eta Kale Nagusia lotzeko ahaleginean lehen urratsa izango dira eskolan jarriko den igogailu publikoa eta bide berri hori. Hurrengo fasea herriko goiko aldea eta behekoa lotzeko bitartekoak jartzea izango da (igogailu bat, adibidez).



ERAIKIN BAKARRA

Egun eskola dagoen leku berean kokatuko da Urkipe Herri Eskola berria, baina eraikin bakarrean. Lehen solairuan, 2 eta 3 urteko haurrak eta jangela egongo dira. Goikoan, gainerrako gelak eta erabilera anitzekoa. Eskolarako sarbide nagusia beheko aldetik egingo da, Iturri Txikitik eskolara joango den errepide berritik. Sarbide nagusiaren ondoan, herritar orok erabili ahal izango duen igogailu publikoa jarriko da, Goiko plazarekin lotura egiteko. Gainera, erabilera anitzeko jolas eremu berritzailea (600 m²-ko espazioa), berdegune zabalak (300 m²) eta sukaldea izango ditu eskola berriak. Gertuko ekoizleen elikagaiak kontsumitzea eta eskolan bertan egindako janaria eskaintzea da gure apustua.

La nueva escuela, nos dará la posibilidad de salvar el tramo de 7 metros entre Beiti y Goiko Kale (zona guardería) gracias a un ascensor público. Para la siguiente fase del proyecto estamos analizando hacer lo mismo para unir definitivamente Kale Nagusia con Goiko Kale.

Eskola berriko igogailu publikoari esker, goiko plazaren eta Beiti kalearen artean dauden ia 7 metroak gaindituko dira.

Herri-proiektu zehatzak, herritarren bizitzak hobetzeko



Etxebizitza egokiak

Gazte eta nagusientzat

Etxebizitza duina eta egokia arrazoizko prezioan eskuratzeko eskubidea garatzeko, babes ofizialeko etxebizitzak sustatuko ditugu, higiezinaren espekulazioari aurre eginez. Herrian etxebizitza beharra duten bi talde antzeman ditugu: emantzipatzeko gaitasuna mugatua duten gazteak eta beraien baldintzetara egokitu gabeko etxebizitzetan bizi diren nagusiak. Eskakizun horiei erantzuteko hainbat etxebizitza eraikiko ditugu, beharrak doitzen joatea helburu duen programa zabalago baten barruan.

Construiremos vivienda de protección oficial para cubrir necesidades detectadas en jóvenes y mayores.



Beko Kale

Martxan den proiektua

Herriko kale nagusi izatetik zokorata geratu den gunea bilakatu da. Egoera hobetzeko aurreproiektua izan arren, bi izan dira lanak hastea ezinezkoa egin duten arazoak: kale bukaerako zelaiko terrenoaren jabetza berreskuratzea eta, hori lortuta, zirkulazioa norabide bakarrekora izateko, kale bukaeran goitik doan errepidearekin ibilgailuentzako beste lotune bat eraikitzea.

Orain Udalak terreno hori bereganatu du eta industriadako bihurtzeko lizitazioa prestatzen ari da. Lizitazioaren pleguan barneratuko da lotune hori gauzatzea, Beko Kale txukuntzeko lan nagusienei hasiera emango diena.



Ingurune bizigarria

Gizarte mailan arazo nagusienetako bat geldiarazteko funtsezkoa izango den hamarraldian gaude: krisi ekologikoa eta bere adierazpen gordinenetakoa den larrialdi klimatikoa. Itsasondon aurre egiteko bide hauek erabiliko ditugu, batik bat: 1) Klima emergen-

tziak eskatzen duen eguzki-energiaren ustiapena; 2) Hondakinen kudeaketa jasangarria, zaborrak lehengai bilakaturik; 3) Lurraldea herri-ondasun bihurtzea, guztiona izan dadin eta 4) Herritarrak ahaldu eta auzolana sustatzea.



Bizimodu duinak

Badakigu herri txikian bizitzeak zein (des)abantaila dituen. Beste administrazioek ongizateari lotutako zerbitzuak zentralitzen dituzte. Dugunari eustez gain, herritarren osasun fisiko zein mentalean inbertsioak egiten jarraituko dugu.



Euskal kultura

Mugimendu euskaltzaleak behar duen arnasberritzearen aurrean, bi zeregin nagusi jarri dizkiogu gure buruari: euskal kulturaren transmisioa globalizazio digitalaren aroan eta euskal kulturaren sustapena kultura emanzipatu eta emantzipatzaile gisa.



Goierriin ere industria politika eraginkorra

EKONOMIAREN TERTZIARIZAZIO PROZESUARI ERANTZUNEZ, EZINBESTEKOA DA GOIERRIRI ONGIZATEA BERMATU DION INDUSTRIA INDARTZEA. ENERGIAN ETA ESQUALDE MAILAKO ARTIKULAZIO ETA PROIEKTU KOOPERATIBOETAN ERE ERAGIN NAHI DUGU.

Goiekiren eta Goierri Valleyren bidez Goierriin politika industrial ekintzailea egin beharra dugu I+G+B ahalegina handituz; eta beste herri erakundeekin, bultzatzaile rola har dezatela. Horrela lortuko baita aberastasuna sortzen jasangarriak izatea, hura egoki banatzea, kalitateko enpleguari eustea, balio erantsi handiagoko ekoizpen-ehunean kokatzea eta industria eramatea ekonomia karbonogabetu eta zirkularerantz.

Goiekik kluster egituren eragina eta efikazia ebaluatu behar ditu; enpresen errotzea indartu behar du; Erkidegoko industria politiketan eragin behar du; eskualdeko enpresak kudeaketa aurreratura bideratu behar ditu, langileen parte hartzea bermatuz; berrikuntza politikak bultzatu behar ditu (teknologiaz gain, merkaturatzean, diseinuan, antolakuntzan...)



Energia erkidegoen sustatzailea

Energia komunitateak sortzeak lehentasuna du eskualdean, energia krisiari aurre egiteko eta herritarrak ahalduntzeko tresna moduan. Eskualdean maila ezberdinetan egin daiteke lan norabide honetan eta elkarlan horren lidergotza eskualdeko Garapen Agentziak eraman beharko luke. Auto-sorkuntza eta energia komunitateak, eskualdeko energia bulegoa, mugikortasun jasangarrirako aukerak eta sarea, CO2 isurketak eta energia-kontsumoa murrizteko proiektuak... Beharrezkoa da herritar, erakunde, enpresa eta adituen arteko kooperazioa sustatzea eta eskualde mailako helburu eta konpromisoak zehaztea.

Goierriago izango gara



Maite
duzun
Goierri

Pertsonen arteko aukera berdintasunari adina garrantzia ematen diogu herrien artekoari ere: nork bere nortasunari eutsi, baina herritarrei aukera berdinak eskaini ahal izateari. Lortuko badugu, baliabideak partekatzen pausoak eman behar ditugu. Baditugu partekatzen ditugun zerbitzuak eskualdean, eta horietan sakontzen jarraituko dugu: osasunean, kirolean, hondakinen kudeaketan, ur-zerbitzuetan, mugikortasunean, azoketan... Horien esperientzia aberasgarriek duten bulkada baliatu eta beste hainbat alorri helduko diegu legealdi honetan: emakumeen etxea, zaintza-kooperatibak, bizikleten alokairua, kultur programazioa koordinatu...

Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



Maddalen
Iriarte
Okiñena

Gipuzkoako
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

*Gipuzkoak dituen
aukera guztiak
baliatuko ditugu, inor
atzean gera ez dadin*

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena. Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bermatuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.

ehbildu

 @MaddalenIriarte

 Maddalen Iriarte Okiñena

 maddaleniriarteokinena

 ehbildu.eus